



BARNE ARAUDIA (BA)

2024

AURKIBIDEA:

0. AURRETIKOAK:

1. SARRERA

1.1- Barne Araudiaren lege-oinarriak

1.2- Ikastolak bere egiten dituen printzipio orokorrak

1.3- BA onartzen duten organoak eta onartze-data

2. Atala

2.- GIZA BALIABIDEEI DAGOZKIENAK

2.1- Guraso edo tutoreen eskubide eta betebeharrak

2.2- Irakasleen eskubide eta betebeharrak

2.3- Langile ez irakasleen eskubide eta betebeharrak

2.4- Ikasleen eskubide eta betebeharrak

3. Atala

3.- BALIABIDE MATERIALEI DAGOZKIENAK

3.1- Zentrorako materiala: inbentarioa, jabetzea, kontrola eta erabilera-arauak

3.2- Eraikina

3.3- Gelak

3.4- Guztion erabilerarako gelak

3.5- Korridoreak

3.6- Botikina

4. Atala

4.- BALIABIDE FUNTZIONALEI DAGOZKIENAK:

4.1- Ordutegia eta kontrola

4.2- Istripuak. Ebakuazio-plana

4.3- Jolasgaraia

4.4- Irtenaldiak.

4.5- Euskara eta Komunikazioak

4.6- Prestakuntza plana

4.7- Ordezkatzeak

4.8- Eskolaz kanpoko ekintzak

4.9- Erretzea

4.10- Egutegiak

4.11- Klaustroak

4.12- Zenbait zehaztapen

5.- DIZIPLINA-ARAUDIA:

5.1- Ikasleei dagokiena

5.2- Langileei dagokiena

5.3- Langileen batzarra

5.4- Langileen greba

6.- AZKEN XEDAPENAK:

6.1- Betetzea

6.2- Ezagutzea

6.3- Aldaketak

7.-ERANSKINA:

7.1- Autobusa

7.2- Jangela

7.3- Eskolaz kanpoko ekintzak (kirol ekintzak, zientifiko-teknologikoak eta kulturalak)

7.4- Danborrada

1.- SARRERA:

1.1-Barne Araudiaren lege-oinarriak

BA honek lege-oinarri hauek ditu:

- a) Elkartearen estatutuak. Axular Lizeoa Kooperatiba
- b) Hezkuntza Eskubidearen Lege Organikoa (HELO) 57. Artikulua

Halaber, ondorengo dokumentu zein arauak erreferentzi puntutzat hartzen ditu:

- 1) Axular Lizeoaren Hezkuntza Proiektua (ZHP)
- 2) Ikastolako langileen lan-hitzarmena
- 3) Ikasleen eskubide eta betebeharrei dagokien Errege Dekretua, 1543/1988ko urriaren 28a
- 4) Datuen babeserako Legea
- 5) Axular Lizeoan burututako Asanblada, Batzorde zein Klaustroetan onartu diren akordioak

1.2 Zentruak bere egiten dituen printzipio orokorrak:

Honako BA Axular Lizeoaren ZHPan agertzen diren ondorengo printzipio hauetan oinarritzen da; sorrera, misioa, ikas-hizkuntzak, ideologi aniztasuna, aukera ez-konfesionala, balore etikoak, integrazioa, koedukazioa, metodologia lineal, gestio-eredua eta Ikastola-multzo baten proiektu orokorrean partaidea izatea.

1.3- Aplikazio-Eremuak:

BA honetan hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien harremanak zuzenduko dituzten arau, erregela eta prozedurak ezarriko ditugu, gure printzipio orokorrak zein nortasun-ezaugarriak gauzatu eta garatzeko eta gure ZHPan adierazitako helburuak errealitate bihurtzeko asmoz.

Araudi honek biltzen dituen xedapenak Ikastola osatzen duten guztiek, beroni dagozkion harremanetan, beteko dituzte:

- ◆ Ikastola honetan ikasten diharduten ikasleen guraso eta tutoreek.
- ◆ Langile dozentek eta ez dozentek.
- ◆ Matrikulatutako ikasleek.

BA onartzen duten organuak eta onartzen-data:

Indarren dagoen legediaren arabera, BA onartzen duen organoa Axular Lizeoaren Kontseilua da.

Honako BA 2009ko maiatzaren 27an onartu da. BA hau onartu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarren.

2.- GIZA BALIABIDEEI DAGOZKIENAK:

2.1-Guraso edo tutoreen eskubide eta betebeharrak:

Guraso edo tutoreak jarraian zehaztuko diren eskubide eta betebeharrak hauek dituzte:

A: ESKUBIDEAK:

A.1- Zentroan dagoeneko ezarrita dauden edo etorkizunean ezarritako diren zerbitzu eta onurak erabiltzea.

A.2- Ikastolaren gobernu-organoetan parte hartzea.

A.3- Seme-alabei dagozkien gaiei buruz hitz egiteko tutoreekin elkarrizketatzea. Horretarako, tutorea aurrez jakinaren gainean jarri ondoren, elkarrizketarako ordutegia errespetatuko da. Era berean, gurasoak beste irakasleren batekin elkarrizketatzea beharrezkoa izango balitz, elkarrizketa tutorearen bidez zehaztuko litzateke.

A.4- Ikastolako langileengandik gizabidezko tratua jasotzea.

A.5- Seme-alaben bilakaera akademiko zein pertsonalaren berri izatea (noten jarraipena, huts egiteak, ekintzak, frogagiriak...)

A.6- Hezkuntza-lerroan parte hartzea eta berau familia esparrura hurbiltzea.

B: BETEBEHARRAK:

B.1- Seme-alaben bilakaera akademiko zein pertsonalaren ezagutzea izatea (noten jarraipena, hutsegiteak, ekintzak, justifikanteak...)

B.2- Seme-alabak erregularri eta puntualki eskola-ekintzetara bidaltzea.

B.3- Ezarritako tasak garaiz ordaintzea.

B.4- Nortasun-ezaugarriak bere egitea eta ZHPan ezarritako helburuak onartu eta horien lorpenean parte hartzea. BAn ezarri diren arauak eta gobernu-organismoek funtzio-jardueretan emandakoak jaso eta betetzea.

B.5- Zentroaren hezkuntza-lerroa familia esparrura hurbiltzea eta irakasleriak aholkatzen dituen irizpide pedagogikoak jarraitzea.

B.6- Irakasleren batekin desadostasunik sortuko balitz, gurasoek tutorearekin hitz egin beharko lukete; eta, beharrezkoa balitz, tutorea bitarteko, irakaslearekin berarekin.

B.7- Eskola-komunitate osoarekin gizabidezko tratu batez jokatzeko.

B.8- Seme-alaben higieua behar bezala zaintzea inor kaltetua izan ez dadin.

B.9.- Zorriak, txertoak eta osasun arloko beste hainbat gairekin lotutako protokoloak jarraitzea.

2.2-Irakasleen eskubide eta betebeharrak:

Irakasleek jarraian zehaztuko diren eskubide eta betebeharrak hauek dituzte:

A: ESKUBIDEAK:

A.1- Ikastolan dagoeneko ezarrita dauden edo etorkizunean ezarriko diren zerbitzu eta onurak erabiltzea, hala nola: irakaskuntza doan izatea, garraio zein jangelako kuotetan beherapena izatea eta baita sor litezkeen bestelakoetan ere.

A.2- Ikastolaren funtzionamendurako organoetan parte hartzea.

A.3- Eskola-komunitate eta gurasoengandik gizabidezko tratu jasotzea.

A.4- Ikastaroan bidez prestakuntza iraunkorra izatea eta Ikastolaren interesak norberaren interesekin uztartzea.

A-5-Tutore, koordinatzaile, ikasketa-buru edo zuzendariaren bidez irakaslearengan sor litezkeen kexen berri izatea, ikastolako edozein estamentuk horien berri izan aurretik.

A.6- Epe labur edo luzean irakasle-taldearengan eragin dezakeen informazioa izatea.

A.7- Klaseen ohiko jarduera aldarazi beharko balitz, koordinatzaile edo ikasketa-buruarengandik aldaketaren berri garaiz izatea.

B: BETEBEHARRAK:

B.1- Irakaskuntza-jarduerak profesionalki eta arduraz burutzea kalitatezko irakaskuntza bermatuz, eta gobernu-organo zein funtzionamenduaren estamentu desberdin orientabideak jarraitzea. Irakasleriak edukiak, helburuak eta ebaluazio-irizpideak eskuragarri izango ditu.

B.2- Irakasle-klaustroak izendatutako gobernu-organoen kargua onartzea.

B.3- Legeak agindutako eta irakasle bakoitzari dagozkion funtzioen arabeko administrazio-biderapen guztiak betetzea, hala nola: programaketak, kartilak, eskolaritate-liburuak, buletinak, aktak, e.a.

B.4- Ezarritako ordutegi eta egutegi betetzea eta ikasleak klasera iristen direnerako irakaslea bertan izatea.

B.5- Guraso eta irakasleei dagozkion gaien berri gizabidezko tratu batez ematea, beti ere irakaslearen irakaskuntza-jardueraren barnean.

B.6- Estatu-arauak, hala barne-araudikoak nola gobernu-organoek emandakoak onartu eta betetzea, eta nortasun-ezaugarriekin zein Ikastolaren ZHParen helburuekin kontraesanik ez erakustea.

B.7- Euskara komunikazio-hizkuntza bezala erabiltzea, bai ikasle eta irakasleekin, eta baita gainontzeko langile ez-irakasleekin ere, ikastolako esparru guztietan.

B.8- Duintasun pertsonala errespetatzea, ikasleen auto-estimua garatzen eta suspertzen laguntzea, eta eskola-komunitateko partaide guztien duintasun pertsonala aintzat hartzea.

B.9- Nork bere ezaguerak beharrezkoak diren prestakuntzen bidez egunean jartzea (birziklapen-ikastaroak, bibliografia eguneratzea, material didaktikoa, teknologia berriak, hizkuntzak, kudeaketa...)

B.10- Koordinatzaile, ikasketa-buru edo zuzendariari zentrorra ez etortzearen berri ematea, arrazoia edonolakoa izanagatik ere.

B.11- Zentroaren Urteko Planaren eta Proiektu Kurrikularren zehaztapenean laguntzea.

B.12- Ikastolak ingurumenarekin lotura duten erabakietan laguntzea.

B.13- Irakasleekin koordinatzea funtzionamendu-irizpide eta baliabideei koherentzia eman ahal izateko (interdiziplinaritatea, ebaluazio-irizpideak eta metodologia...) koordinazio bertikala eta horizontala jarraian zehazten diren mailetan:

a) **Mintegiak:** mintegi berean lanean diharduten irakasleen artean informazio-trukaketa, bereziki ziklo berean ari badira (interdiziplinaritatea).

b) **Zikloak/Etapak:** Etapa desberdineko koordinatzaileen arteko informazio-trukaketa, programazioak, helburuak, ekintzak, kudeaketa ...

c) **Arloak (Gai edo asignaturak):** Materia bera irakasten ari diren irakasleen arteko komunikazio bertikala eta horizontala.

d) **Tutoretzak:** Bi ikasturte jarraian izanik, tutoreen arteko informazio- eta komunikazio-trukaketa, bereziki, ziklo aldaketa gertatuz gero. Tutoreak gelaren ezaugarrien berri emango dio tutore berriari, eta baita ikasle bakoitzarena ere.

B.14- Arlo eta mailan burutu ohi den memoriaren ebaluazioan laguntzea, bertan helburuen lorpenaren gradu-azterketa burutuko da baita irakasle-taldea aberats dezaketen alderdi positiboen azterketa ere.

B.15- Gelan sor litezkeen balizko arazoak berri zuzendaritzari ematea eta, zikloari legozkiokeen arazoak direnean, baita irakasleek konpon ez litzaketen kasuen berri ematea ere.

B.16- Barne-datuen erabileran arreta berezi izatea, Datuen Babeserako Legeak ezartzen duena aintzat harturik.

B.17- Ikastolako gobernu-organoek diseinatu eta onartutako irakaleen profilariekiko jarrerak, prestakuntza eta gaitasun-garapena garatzearen alde lan egitea.

B.18- Ikasleekiko ohitura eta jarrera osasungarriak eta eredugarriak erakustea:

B.18.1- Euskararen erabilera eta sustapena bultzatzea.

B.18.2- Ikastolan ezin da alkoholik, tabakorik edo bestelako gai toxikorik kontsumitu.

B.18.3 Ikastolako espazio komunetan telefono mugikorra ez erabiltzea.

2.3- Langile ez-dozenten eskubide eta betebeharrak:

Langile ez-dozenteak jarraian zehaztuko diren eskubide eta betebeharrak hauek ditu:

A.- ESKUBIDEAK:

A.1- Ikastolan ezarrita dauden edo etorkizunean ezarriko diren zerbitzu eta onurez baliatzeko aukera izatea, hala nola: irakaskuntzaren dohaintasuna eta garraio zein jangelako kuoten beherapenak.

A.2- Ikastolaren funtzionamendurako organoetan parte hartzea.

A.3- Ikastaroen bidez prestakuntza iraunkorra izatea eta ikastolaren interesak norberaren interesekin uztartzea.

A.4 Eskola-komunitatea osatzen duten guztiengandik (guraso, ikasle, irakasle e.a) giza bidezko tratua jaso eta norberaren integrazio eta funtzioa errespetatzea.

A.5- Zuzendari edo Administratzailearen bidez norberari buruz sor litezkeen kexen berri izatea, ikastolako edozein estamentuk horien berri izan aurretik.

B: BETEBEHARRAK:

B.1- Estatu, hala BAKoak nola gobernu-organoei emandakoak onartu eta betetzea, eta nortasun-ezaugarriekin zein ikastolaren ZHParen helburuarekin kontraesanik ez erakustea.

B.2- Burutzen diren jardueretan profesionalki eta arduraz aritzea eta Hezkuntza Komunitatea osatzen dutenekin lan egitea, sarreran zehazten diren 1.2 eta 1.3 puntuen arabera.

B.3- Legeak agindutako eta dagozkion funtzioen arabekoak diren administrazio-biderapen guztiak betetzea.

B.4- Euskara komunikazio-hizkuntza bezala erabiltzea, ikasle, irakasle eta langile ez-irakasleekin, ikastolako eremu guztietan.

B.5- Hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien duintasun pertsonala errespetatzea.

B.6- Ezarritako ordutegi eta egutegi betetzea.

B.7- Zuzendari edo administratzaileari zentzura ez etortzearen berri ematea, arrazoia edo zergatia edonolako izanagatik ere.

B. 8- Lan-zentroan erabiltzen diren datu eta materialak arreta bereziz erabiltzea, Datuen Babeserako Legeak eta honetatik eratorritako jarraibideak ezartzen duena aintzat harturik.

B.9- Ingurumenarekin lotura duten ekimenetan laguntzea.

2.4 -Ikasleen eskubide eta betebeharrak:

A- ESKUBIDEAK:

A.1- Hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea. Ikasleek beren nortasuna guztiz garatzeko aukera emango dien hezkuntza integrala jasotzeko eskubidea dute. Hezkuntza integral horretan, oinarrizko gaitasunak, zientziaren eta kulturaren arloko edukiak eta lan-ohitura intelektual eta teknikoak hartu ez ezik, garapen harmoniatsua ere bultzatuko da honako hauei dagokienez: afektibotasuna, autonomia pertsonala, auto-estimua, besteekiko eta ingurunearekiko harremanak izateko gaitasuna, eta jarduera profesioaletan, intelektualetan nahiz aisiakoetan jarduteko gaitasuna.

A.2- Ikasle adingabeek ikastetxeen nahiz irakasleen arreta berehala jasotzeko eskubidea dute.

A.3- Ikasle adingabeek Ikastolak haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute.

A.4- Errendimendu akademikoaren balioespen objektiboa izateko eskubidea. Ikasleek eskubidea dute beren dedikazioa, ahalegina eta errendimendua objektibotasunez aintzat hartu eta balioetsi diezaieten.

A.5- Ikasleek hezkuntza- eta lanbide-orientazioa jasotzeko eskubidea dute. Orientazioa ikasleen trebetasun, gaitasun, nahi eta interesetan oinarrituko da, eta sexuan edo bestelako zirkunstantziaren batean oinarritutakoak baztertu egingo dira.

A.6- Osotasun, nortasun eta duintasun pertsonaleko eskubidea.

A.7- Ikasleek eskubidea dute beren kontzientzia-askatasuna eta beren erlijio-sinesmenak nahiz sinesmen moral eta ideologikoak errespetatu diezazkieten.

A.8- Ikastolan biltzeko eskubidea.

A.9- Adierazpen-askatasuna izateko eskubidea.

A.10- Ikasleek elkartzeko eskubidea izango dute.

A.11- Ikasleek ikastetxeko jardueran eta bizimoduan parte hartzeko eskubidea dute, indarrean dauden araei jarraiki.

A.12- Informazioa erabiltzeko eskubidea.

A.13- Aukera berdinak izateko eskubidea.

A.14- Heziketa arloan babes soziala izateko eskubidea, istripu edo famili ezbeharren bat egokituko balitz.

A.15- Ikastolan ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermatzea.

B- BETEBEHARRAK:

B.1- Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan.

Ikasleak behartuta daude egin-behar akademikoen aurrean zintzotasunez jokatzera.

B.2- Ikasle guztiek hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

B.3- Ikasleek egunero joan behar dute eskolara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko ausentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

B.4- Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskola-bizikidetzak hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritzak eta orientazioak errespetatuz. Horretarako, ikasleek beren ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako Bizikidetzak Arauak jakin behar dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteak beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazkek konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziak eta elkartasunez jokatuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.

B.5- Ikastolako arlo guztietan komunikatzeko euskara erabili behar du.

B.6- Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra du.

B.7- Ikastolako arauak errespetatzeko betebeharra, eta Ikastolak ingurumenari buruzko hartutako neurrietan laguntzea.

B.8- Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko, instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo. Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan.

3.- BALIABIDE MATERIALEI DAGOZKIENAK:

3.1- Zentroko materiala:

3.1.1- Urtero gela, biltegi, idazkaritza eta jangelari buruzko inbentarioa bertako arduradunek burutuko dute.

3.1.2- Tresneriaren erosketa zuzendariak edo berau ordezkatu duen arduradunen batek burutuko du, beti ere zuzendariaren onarpenarekin.

3.1.3- Tresneriaren erabilera eta kontrola arrazionaltasun-irizpideen arabera egiteaz eta kontrola arrazionaltasun-irizpideen arabera egiteaz gain, tresneriaren kostua bereziki kontutan hartuko da, eta norberarena eta ez beste inorena bailitzan erabiliko.

Materiala berritzeko edo matxuraren bat konpontzeko, indarrean dagoen prozesua erabiliko da, eta presazkoa bada, Idazkaritzan jakinaraziko da, berehalako konponketa edo eskaera egin dadin. Aparailuren bat ez badabil, ez da berorren erabilera bortxatuko.

Aparailuen garbiketa guztion eta erabiltzen duen ooren ardura izango da.

3.1.4- Klariona eta errotulkiak arbelean idazteko besterik ez da erabiliko, ikaslearen baimenik gabe beste erabileraren bat emango balitzaio (klarion-jaurtiketa, esaterako) ikasleak, gutxienez, hondatutako klariona erosi beharko luke.

3.1.5- Orri txuriak neurrian erabiltzeaz gain (egungo sistema) paper birziklatuaren erabilera (edo mota honetako materialarena) bultzatu egingo da.

3.1.6- Erreprografia: Guztion ardura da fotokopiagailua eta inprimagailuen erabilera arrazionalizatzea. Fotokopiagailuan eta inprimagailuan funtzionamendu-akatsak gertatzen badira, berehala jakinaraziko da idazkaritzan.

3.1.7- Telefonoa:

Telefonoak gehiegi erabiltzea saihestuko da.

Irakasleek linea finkoetatik telefono mugikorretara dei gehiegi egin ez dezaten, familiei behin eta berriz eskatuko zaie tutore bakoitzak dagokion tutoretza-telefonoan ezarritako orduetan deitzeko, haiekin hitz egiteko.

Hala ere, gogora dezagun gure komunikazio tresna ofiziala Inika dugula.

Langileek lanarekin lotutako gaietarako erabiliko dute telefonoa, eta, salbuespenak salbuespen, ez da eskola-orduetan edo jolas-orduetan egingo, ordu osagarrietan baizik.

Ez da deirik egingo eskola-orduetan, premiazko arrazoi edo arrazoi larririk ez badago.

Irakasleentzako deiak idazkaritzan jasoko dira eta mezua jakinaraziko zaie irakasleei eskolak eten gabe.

Familiei harremanetarako zenbaki hau emango zaie: 943.31.60.66 edo dagokion tutoretzarena.

IKASLEAK TELEFONOA ETA ERLOJU ADIMENTSUAK:

- Eskola-orduetan, telefono mugikorrak eta erloju adimentsuak debekatuta egongo dira ikaslea ikastolako espaziotik irten arte.
- Telefono mugikorra eta erloju adimentsua soilik erabili ahal izango da, urgentzia batengatik edo helburu pedagogikoekin, ikastolako irakasle batek kontrolatutako eta gainbegiratutako erabilera egiteko baimena eskatuz.

Ikasle batek arau hori betetzen ez badu:

- a) Lehen aldian, gailua astebetez konfiskatuko da.
- b) Bigarren aldian, gailua konfiskatu egingo da, eta gurasoetako batek ikastolara joan beharko du tutorearen eskutik jasotzera.
- c) Hirugarren aldian, gailua konfiskatu egingo da ebaluazioa amaitu arte, eta une horretan gurasoek ikastolara joan beharko dute hura jasotzera.

3.2- Eraikina:

3.2.1- Matxurak edo hondaketak gertatu edo antzemanaz gero, (kristalak, ateak, komunak, gortinak....) eskolazainari gertatukoaren berri emango zaio.

3.2.2- Matxuraren bat nahita edo zabarkeriaz, erabilera okerraz ... gertatzen bada, egileak berorien konponketa-lanak burutu beharko ditu eta ezinezkoa denean, berjarpen-lanetan parte hartuko beharko du.

3.2.3 Horma, friso, marko eta abarretan ez da inoiz idatziko. Horrelakoak gertatzen direnean, idatzitakoa egileak berak garbitu edo konpondu beharko du, eta zeregin hori arduradunaren pean geratuko da.

3.2.4- Ikastola barruan (gelan, korridoreetan) ezin da ez baloi, pilota edo arriskuren bat izan dezaketen jostailuez (patinak..) jolastu ezta zarata atera ere. Horrelakoetan, erabiliko objektua arduradunen esku geratuko da.

3.2.5- Leihotik ez da ezer botako. Hori gertatuz gero, eta jaurtikitakoa jaso ondoren, zigorra irakasleak erabakiko du.

3.2.6- Haize-erauntsiak izaten diren egunetan ate eta leihoak zaindu egingo dira.

3.2.7- Ikastola osatzen duten guztien ardura izango da eraikinaren inguruko lorategiak zaintzea.

3.2.8- Ikastolarako sarrera ordu eta irteeretan espaloiak eta sarbide egokiak erabili behar dira.

3.3- Gelak:

3.3.1- Geletan erabiltzen dugun tresneria bildu eta zaintzeko ohitura bultzatu behar dugu.

3.3.2- Klaseak amaitutakoan gelak behar bezala utzi behar dira (garbitasun-lanak errazteko aulkiak mahai gainean), argiak itzalita eta atea itxita. Irakasleen ardura izango da ikaslea zeregin horietara ohitzea eta aipatutakoa betearaztea.

3.3.3- Noizean behin gelaren garbiketa orokorra egingo da (mahaiak, hormak, kartelak edo atzeratutako oharrak). Ikasturte amaieran, bereziki, gela guztiak garbi-garbi utzi behar dira, eta irakaskuntzarekin loturarik ez duen materiala edo material zaharkitua bota egingo da.

3.3.4- Aldameneko geletan irakaslearen baimenik gabe sartzea debekatuta dago.

3.3.5- Arreta berezi jarriko da pertsianak igo eta jaisterakoan.

3.3.6- Gelak beti ordenaturik egongo dira (liburuak, koadernoak, mailetak e.a lurrean barreiatuta utzi gabe). Leku ordenatu eta txukunetan hobeto eta gusturago lan egiten da.

3.3.7- Kontuz ibili behar da posterrak edo paperak hormetan zintzilikatzean (txintxetak erabili, zelorik ez). Frisoetan zeloa, txintxetak e.a. erabil daitezke. Korridoreetako posterrak irakurri ez ezik errespetatu ere egin behar dira.

3.3.8- Gela, mintegi edo tutoretza betean sartu aurretik atea jo eta baimena eskatuko da.

3.3.9- Gelak irudiz hornituak egon daitezke, baina inolaz ere ez paper, poster, zintzilikailu eta abarrez gainezka. Ikasleek edozein poster zein irudi jarri ahal izateko tutoreari baimena eskatuko diote.

3.3.10- Gelako gortinak ere behar bezala zaindu behar dira (gortinen euskailuek erresistentzia mugatua baitute)

3.3.11- Geletan debekatua dago jatea (ogitartekoak, txikleak, pipak.e.a) eta edatea (lata freskagarriak) egun berezietan izan ezik. Kasu hauetan irakasle edo tutorearen baimena beharrezkoa izango da.

3.4 – Guztion erabilerarako gelak:

3.4.1- Guztion erabilerarako gelek arduradun bat eta ordutegi bat izango dute.

3.4.2- Irakasle bakoitzak koordinatzaile nahiz ikasketa-buruaren bidez gelen erabilerarako ordutegiak ezagutuko ditu, aldezturik hartuta edo erreserbatuta dauden gelen ordutegi-orria ikastolako intraneta den AKAS-en eskura izanik.

3.4.3- Gela bat erabili ondoren behar bezala utziko da (liburuak, apalategiak, telebista, dispositiboak, koltxonetak, jostailuak edota ikastolak utzitako bestelakoak).

3.4.4- Gela batean sartzean bertako gauzak jaso gabe aurkituz gero, gelaren arduraduna jakinaren gainean jarri behar da.

3.4.5- Gelatik materiala ateratzen bada, berorren berri arduradunari eman behar zaio (nork atera duen, noiz arte ...) baita itzuleraren berri ere.

3.4.6- Gela horietako giltzak dagozkion lekuan egongo dira eta erabiltzen duenak kontuan izan behar du bere tokian utzi behar dituela.

3.4.7- Sukaldean eta laborategietan bereziki, beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartuko dira bai erabili aurretik, baita ondoren ere.

1.-GIMNASIOA

1.- Gimnasia-aretoa:

Gimnasia jarraian zehazten diren ekintzetan erabili ahal izango da: soinketa, eskolaz kanpoko ekintzak eta zentroak baimendutako jardura guztiak. Horrelakoetan, instalazioen erabilera zuzena bermatuko duen arduradun bat bertan izatea ezinbestekoa da.

Ekintza amaitutakoan, erabili diren gauza guztiak jaso, dagozkion lekuan ipini, argiak itzali eta atea giltzaz itxiko da.

Gimnasioko balkoi korrituan dauden armairuak material arduradunak soilik erabili ditzake (bi lehenengo atak) eta baita Gorputz Hezkuntzako irakasleek ere. Armairu horiek kirol-materiala erabiltzeko baino ez dira. Ikasleen ardura duen irakasleak armairuetako erabilera zainduko du.

2.- Gimnasia-aparailuak:

2.1- Atal honetan honako aparailu hauek sartzen dira: rokodromoa, koltxonetak, goitik beherako sokak, suediar bankuak eta horma-barrak.

2.2- Aparailu guztiak arreta bereziaz erabiliko dira eta beti jardueraraduradunaren kontrolpean. Aipatutako kontrolak aparteko garrantzia du, aparailu-mota horien erabilera okerrak arrisku handiak sor baititzake.

2.3- Rokodromoa arduradun baten zaintzapean soilik erabili ahal izango da.

2.4- Erabili ondoren aparailuak dagokien lekuan utziko dira.

3.-Kirol-materiala:

3.1- Atal honetan baloiak, palak, pilotak, mendiko materiala e.a. sartzen dira.

3.2- Material guztia arreta bereziaz zainduko da eta dagokion espezialitaterako besterik ez da erabiliko. Zenbait kasu berezitan arduradunaren kontrolpean beste edozein jardueratarako erabil daitezke.

3.3- Erabili ondoren, kirol-materiala dagokion lekuan ipiniko da.

4.- KALTEAK:

4.1- Hondatu edo hautsitako kirol-materiala denean, gimnasia edo instalazio-aparailuak esate baterako, jardueraren arduradunari gertatukoaren berri emango zaio. Era berean, arduradunak zuzendaritza jakinaren gainean jarriko du beharrezkoak diren konponketa edo erantzukizun-neurriak hartu ahal izateko.

4.2- Kirol-materiala galtzen bada, erantzukizuna ekintza-antolatzailearena izango da. Ikasleen zabarkeriaz kirol-materiala galtzen bada, ekintzaren arduradunak galdu den materiala berjartzera behartuko ditu ikasleak. Aipatutako galera irakasle zein entrenatzaile eta abarren erruz gertatuz gero, kirol-koordinatzaile nahiz zentroaren zuzendaritzari galeraren berri eman eta dagokion neurria ezarriko zaio.

2.-LIBURUTEGIA:

Kontsulta eta mailegu zerbitzua araudi berezi batek araupetuko ditu.

Araudi bateratu bati jarraikiko zaio honako zertzeladei dagokienez: ikasketa edo kontsulta-gela gisa ematen zaion erabilpena, lehentasunak, liburuen mailegu-sistema etab.

Liburuak zaindu eta dagozkien apaletan gordeko dira.

Irakaslearekin batera erabili behar denean, azken horren irizpidearen arabera erabiliko da.

3.- LABORATEGIAK:

Kontutan hartzekoak: materiala, arduraduna, esperimentuaren arduraduna, ikaslea.

MATERIALA:

(1)- *Materialtzat* hartuko dira bai substantziak, bai praktikak burutzeko beharrezkoak diren aparailuak.

(2)- Praktika amaitu ostean, materialak dagozkien armairuetan gordeko dira giltzapean.

(3)-Laborategietan jardunik ez dagoen bitartean, laborategiko armairuak giltzaz itxita egongo dira.

(4)-Ikasle zein irakasleek laborategitik materiala ateratzekotan epe jakin batez eta laborategiaren arduradunari hitzez zein idatziz jakinaraziz aterako dute, eta eramandako egoeran itzuliko diote azken horri.

Laborategiko ARDURADUNA:

- (1)- Laborategi bakoitzak bere arduraduna izango du, Zientzia departamentuko irakasleen artean hautatua.
- (2)- Materialaren laborategiaz kanpoko balizko erabilpenaz arduratuko da, baita berorren segimenaz ere.
- (3)- Laborategiaren erabilpena koordinatuko du.

Praktiken ARDURADUNA:

- (1)- Praktiken arduradunak zuzenduko du burutu beharrezko jarduera.
- (2)- Zuzenduko duen esperimentu-materialaren erabilpen egokia ikustatuko du.
- (3)- Praktikak dirauen artean, ez da laborategitik joango, baldin eta justifikatutako arrazoirik ez badu.
- (4)- Praktiken ondoren armairuak ixteaz eta giltzak gordetzeaz arduratuko da.
- (5)- Kalte fisikoak dakartzan istripurik gertatuz gero, kaltetua sorosteko beharrezkoak diren pauso guztiak emango ditu.
- (6)- Jardunaren ondoren, laborategiaren ordena eta txukuntasuna ikuskatuko ditu.

IKASLEA:

- (1)- Praktika burutzen ari den bitartean darabilen materiala zainduko du eta erantzukizun horren arduradun izango da.
- (2)- Jardunaldian ez du ezer aterako armairutatik irakaslearen baimenik gabe.
- (3)- Ezingo du laborategia erabili, ez bertatik materialik atera laborategi horretako arduradunaren baimenik gabe.
- (4)- Esperimentua amaitu ostean, erabilitako materiala txukunduko du.
- (5)- Materiala oker erabiltzeagatik kalteren bat sortuko balitz, material hori konpondu edo, hala behar balitz, berria ekarriko beharko du.
- (6)-Mahai gainean materiala badago, eta berak burutu behar duen praktikari ez badagokio, errespetatu egingo du.

IKUS-ENTZUNEZKOEN GELA / ARETO NAGUSIA:

Gela horiei dagokienez, lehenik eta behin, altzari eta baliabide teknikoen arteko bereizketa egin beharra dago:

(A)- Altzariak:

- 1- Aulkiak dagozkion lekuan eta ezin egokiago utziko dira klaseetatik irten aurretik.
- 2- Guztiz debekatuta dago gela horretako mahai zein aulkietan idaztea.
- 3- Gelatik irten baino lehen argiak itzali beharko dira eta ateak giltzaz itxi.
- 4- Arbelak garbi eta bere lekuan geratu beharko du erabili ondoren.
- 5- Proiekzio-pantaila bildu egin beharko da erabili ostean.
- 6- Telebista eta musika-armairuak itxita utzi beharko dira.
- 7- Beste altzariren bat erabili behar izan bada, bere lekura itzuli edo ongi bilduta utzi beharko da, atzera erabiltzeko.

(B) Baliabide teknikoak.

(1)- Bestelako materiala

Gela horretan normalki egoten ez den materiala aurkitzea gerta liteke, hots, antzerki-eskenatokia edota ikastolakoa ez dena, baina bertan erabiltzen ari den materiala dena.

Eskenatokia erabiltzen bada, kontu handiz zaindu beharko da, baita antzerki-taldea erabiltzen ari den materiala ere. Materiala ikastolako ez bada, ezingo da inolaz ere erabili.

(2)- Hitzartutakoaren arabera, eguna eta ordua dagokion lekuan erregistratuko da (AKAS).

C- Matxurak:

Edozein tresna matxuratuz gero, AKAS-en erregistratuta geratuko da.

Altzariren bat apurtuz gero, idazkaritzan jakinaraziko da konpontzera eramateko.

INFORMATIKA:

Informatika materialtzat ondorengook jotzen dira; modu guztietako hardware, software eta informatika-alorreko irakaskuntzari eta ikerkuntzari dagokion bibliografia.

Erabiltzailetzat ondorengook jotzen dira; zentroan dagoen informatika-materiala erabil dezakeen ikasle edo langile ez-dozenteen taldeetako edozein kide.

Material informatiko hori ikastetxearen jabetzakoa denean, erantzule informatikotzat joko da denbora-tarte batean lan-saio bat zuzentzen duen irakasle hori.

ERABITZAILEARI DAGOZKIONAK:

1. Erabiltzaile orok erabil dezake IKT-etarako ikastolak eskainitako tresnak..
2. Erabiltzaile orok egoki zainduko ditu informatika materiala, zein gelaren garbiketa.
3. Disko gogorren egitura ez da inolaz ere aldatuko.

4. Ikaslea ikasturte hasieran ematen zaion harware eta softwareen erantzule izango da. Ezingo du beste ekiporik erabili ziklo/gelarduradunari jakinarazi gabe.
5. Ikastordutatik kanpo edozein gela edota espazio erabili behar izatekotan, **ikasle oro beharturik dago ziklo/gelarduradunari jakinaraztea. Gainera, ikasleak irakaslearen baimena eta presentzia beharrezkoa izango du.**
6. Irakasle bakoitza bere zikloari eman zaizkion harware eta softwareen erantzule izango da. Ezingo du aldaketarik egin IKT arduraduna jakinaren gainean jarri gabe.
7. Erabiltzaile oro beharturik dago ZIKLO/ GELA-ARDURADUNEN jakinaren gainean jartzea ekipo zein aplikazioetan antzematen duen edozein akats.

Debekatutako jokabideak:

ONDORENGO EKINTZAK GUZTIZ DEBEKATUTA GERATZEN DIRA, ETA DAGOZKIEN ZIGORRAK JASOKO DITUZTE:

- 1-** Fitxategiak instalatzea zein lehendik daudenak ezabatu edo aldatzea.
- 2-** Bertako aplikazioen kopia iruzurtia.
- 3-** Zentroko ikasleen zereginetarako ipini den materiala (kontsultatresnak, euskarri magnetikoak, papera etab.)
- 4-** Ikasleen eta zentroko instalazioen kalterako izan daitekeen beste edozein jardun. 202/2008ko dekretua abenduaren 2a (Ikasleen eskubide eta betebeharrak).
- 5-** Ekipoen kableak, teklak edo konexioak manipulatzeko edo lekuz aldatzea. Ikasleak ez dira matxurak konpontzen saiatuko.

OHARRA:

- 1-** Gelan ahalik eta txukuntasun eta ordenaturik izatearren, **EZINBESTEKOA DA lan-aretoa guztiz jasota uztea.** Hala ez bada, kaltegileari behin-behinekoz gela erabiltzea debekatuko zaio.
- 2-** Gelaren instalazio-antolakuntzak zenbait helbururi erantzuten dio; horrenbestez, ezingo da inondik inora aldatu.
- 3-** Erabilpen okerra dela eta, instalakuntzak, edota berorietan ezarritako aplikazioak apurtu edo kaltetzen badira, arduradunei jakinaraziko zaie. Horren berri eman gabe ezingo da gela utzi.

4- CD eta DVDak suntsitzeko eta birziklatzeko, fotokopia-gelako aparailua erabiliko da.

ARMAIRUEI DAGOZKIENAK

1. Armairuak erabili behar ez badira, BETI giltzapean egongo dira eta argi-indarrera entxufaturik.
2. Erreserba egiteko AKAS-en egongo den erregistroa betetzea ezinbestekoa da. Erabilera pedagogikoak izango du lehentasuna, ikastolako proiektuekin lotura dutenek, batez ere.
3. Ikasleak zerrendaren arabera dagokion ekipoa erabiliko du, eta ezingo du aldatu.
4. Ekipoak jasotzerakoan, irakasleak erabilera zuzena eman zaiela egiaztatuko du, eta baita behar bezala konektaturik daudela ere.
- 5.- Matxuraren bat gertatzen bada, ikasleak irakasleari jakinaraziko dio (ez du saiatu behar ekipoa konpontzen). Irakasleak konpondu ezingo balu, matxuraren berri emango du AKAS-en bidez.

ORDENAGAILU ERAMANGARRIEN ORGATXOEI DAGOZKIENAK

Erabili ondoren ordenagailuen orgatxoak dagokien lekuan utzi behar dira BETI.

Erreserba orgatxoan dagoen orrian apuntaturik egingo da. Erabilera pedagogikoak izango du lehentasuna, ikastolako proiektuekin lotura dutenek, batez ere.

Ekipoak jasotzerakoan, irakasleak erabilera zuzena eman zaiela egiaztatuko du (ordenagailu eramangarria, bozgorailuak, proiektorea haizagailua geraturik eta itzalita daudela. Era berean, kableak behar bezala jasota daudela, korapilo desegokirik gabe, egiaztatuko du).

4. Matxuraren bat gertatzen bada, eta irakasleak konpondu ezingo balu, matxuraren berri emango du Gela Birtualaren bidez.

6.- FOTOKOPIAGAILU GELA

1. Fotokopiagailuen erabilera 3.1.6 atalean arautua dago BA honetan (Baliabide materialak).
2. Birziklatu ahal izateko, hondakin guztiak dagokion ontzian utzi behar dira (kartutxoak, tonerra, DVDak, CDak, papera, plastikoak ...)
3. Kafe-makina ikastolako langileriak eta gurasoek erabili ahal izango dute soilik (ikasleek, beraz, ezingo dute erabili, helduren batek baimentzen ez badu).

3.5-Korridoreak eta alboko sarrerak.

3.5.1.- Espazio horietan, geletan egiten ari den lana errespetatuz jokatu behar da, eta lan egiteko isiltasuna bermatuz ere bai, ziklo ezberdinetako ikasleek begirunea erakutsi beharko diote elkarri guztion erabilpenerako diren gelak erabiltzean.

3.5.2.- Gelatik jardunen bat burutzeko irteten den bakoitzean, irteera antolatu duen irakasleak bermatuko du aurreko puntua betetzea.

3.5.3.- Korridoreak eta alboko eskailerak ez dira ez jolastoki, ez egongelak ere. Aisialdian dauden ikasleak eskaileretan, eta, klaseak ematen ari diren geletan, ibiltzea debekatuko da.

3.5.4.- Hormetako txartelak errespetatu egingo dira, eta baita kortxozko paneletan ipinita dauden ohar edo deialdiak ere.

3.5.5.- Talde bakoitzak berari dagokion lekua besterik ez du erabiliko.

3.6-Botikina:

Ikastolako segurtasun laboralaren departamentuak ezarritako arauak jarraituko dira.

3.6.1.- Solairu guztietan erabilgarri daude, eta sendakuntza arinak burutzeko behar-beharrezkoak diren gaiak eduki beharko ditu (desinfektagailuak, analgesikoak, gasak, bendak, jostura-puntuak erabili ondoren botatzeko eskularruak ...)

3.6.2.- Erabili ondoren dena txukun utziko da, eta sendagairen bat bukatu bada, eskolazainari edo idazkaritzako norbaiti jakinaraziko zaio berriro ekar dezan.

4.- BALIABIDE FUNTZIONALEI DAGOZKIENAK

4.1- Ordutegia eta kontrola.

4.1.1- Ordutegia betetzea oinarrizko balioa da, bai irakasle, bai ikasle, bai gainerako langileentzat. Pertsona eta erakundeekiko begirunea adierazten du. Irakasle, guraso eta zentroko zuzendaritzak, denok izango dute ordutegia betetzeari dagokionez erantzukizuna.

Ordutegiak aipatzen direnean ondorengoak eman nahi dira aditzera: sartzeko eta irteteko orduak, jolasgaraiak, klaseak, guztion erabilerarako gelak eta beste hainbat.

Ordutegiak betetzen ez dituenari arduradunak ohar bat egingo dio, eta bere horretan jarraituz gero, kasu jakin hori aztertu egingo da, dagokion irtenbidea emateko.

Ordutegia ez betetzeak ondorio txarrak dakartza:

Lana ez egitea.

Lankideei enbarazu egitea.

Denbora alferrik galtzea.

Etenaldiak.

Ohitura txarren sustapena.

Begirune falta.

4.1.2.- Ikasleak ikastorduetan ikastolatik irteteko, gurasoek baimena eskatu beharko dute, eta tutoreak edo une horretan ardura hori duen irakasleak, jakinaren gainean egon eta onespina eman beharko du.

4.1.3- Klase-orduetan irakaskuntzan ez diharduen edonori debekatu egiten zaio gela, korridore eta inguruetan ibiltzea, kasu berezi eta baimendutakoetan salbu.

4.2- Istripuak.

4.2.1- Une orotan, beti ere Ikastolan eta ohiko ordutegiaren barnean badago, ikasleak erantzule jakin bat izango du, hots: klase-ordu eta jolasgaraietan, irakasleak, otorduetan, zaintzaileak, eskolaz kanpoko ekintzetan, irakasle edo monitoreak: autobusetan, zaintzaileak....

Istripu larriren bat gertatuko balitz, kasu hauetarako prestaturiko jarraibideak jarriko lirateke martxan.

Istripu larriren bat gertatzen bada, une horretan ikaslearen erantzule den pertsonak eman beharko dio hasiera beharrezkoa zaion sorospena. Ondoren, eskolazainak eta irakasle batek erietxera eramango dute zauritua.

Jarraian, irakasle hori erietxean geratuko da ikaslearen gurasoak iritsi arte. Ikasketa-buru edo koordinatzaileak arduratu beharko du une horietan irakaslerik gabe geratu den gelaz.

Beti emango zaie istripuaren berri zuzendaritza-kide eta ikaslearen guraso edo tutoreei; eta nola, noiz eta zer egoeratan gertatu den istripua adieraziko zaie.

4.2.2- Istripua **arina** bada, dagokionak lehen sorospenak emango dizkio ikastolan bertan. Hala eta guztiz ere, ikaslea Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzako bada, tutorea guraso edo tutoreekin harremanetan jarriko da istripuz nola, non, noiz eta zer egoeratan gertatu den azaltzeko.

4.2.3- Istripuren bat gertatuko balitz, edo gertatzeko arriskurik balego, edozein pertsonak jarri beharko luke zuzendaria jakinaren gainean, beharrezko neurriak har ditzan.

4.2.4- Aldiro larrialdi-simulazio eta ikastola hustea burutuko dira. Bukatutakoan talde-arduradun bakoitzak honakoak zehazten dituen txostena aurkeztuko du: ikastola husteko behar izan den denbora, jazotako gorabeherak eta hobekuntza-proposamenak.

4.2.5- Zentroak ahal dituen bideak ipiniko ditu bertako langileek lehen sorospen-ezagutzak ez ezik arnasa-bihotz- bizkortzea ere izan ditzaten.

4.2.6- Ikastolak desfibriladore automatikoa (DEA) du bere gain, arnasa-bihotz- gelditze egoeretarako. Prestakuntza jaso duten langileek baino ezingo dute erabili.

4.3-Jolasgaraiak:

4.3.1- Jolasgaraiak lanorduen barruan sartzen direnez gero, irakasle guztiak zainduko dituzte derrigorrezko hezkuntzari dagozkion zikloetan. Denbora hori ondorengo zereginetarako erabiliko da:

- ❖ Erlaxatu eta eskola-jardunetatik atseden hartzeko.
- ❖ Ikasleei so egiteko eta elkarrekiko harremana sustatzeko.
- ❖ Honakook ekiditeko: arrisku-egoerak, borroka, ikasleak ikastolatik kanpo irtetea.
- ❖ Euskararen erabilpena sustatzeko, ziklo bakoitzean antolatutako ekimenak sustatuz.

4.3.2- Euria ari duenean, txikienak batez, ere busti ez daitezen, zaindu egingo dira.

4.3.3- Jolasgaraian ikasleek jolastokira jaitsi beharko dute, baldin eta irakasleren batek, kasu bereziren batean eta bere erantzukizunpean, ikasle-talde batekin gelan geratzea erabakitzen ez badu.

4.3.4- Derrigorrezko hezkuntzan debekatuta dago eskola-esparrutik irtetea.

4.3.5- Jolasgaraietan kirol-esparruen erabilera-arauak beteko dira. Hala, beti izango dute lehentasuna irakaskuntza-jardunak eta alde zuzenetik baimendutako lehiaketa antolatuek.

4.3.6- Jolasgaraietan ezingo da ibili Idazkaritza aurrean. Hesia igaro ahal izateko derrigorrez eskatu beharko zaio baimena irakasleren bati.

4.4.-Irtenaldiak

4.4.1- Ikasleekin burutu ohi diren irtenaldiek garrantzi handia dute ikastolaren hezkuntza-proiekturako eta proiektu kurrikularerako.

4.4.2- Irtenaldiak alde zuzenetik eta ahalik eta egokien prestatu behar dira, ahal den heinean sor litezkeen arazoak ekiditeko. (Eguraldiaren arabera leku itxi ala irekiak aukeratzea, e.a)

Irtenaldietan euskararen erabilera sustatzen ahaleginduko da.

4.4.3- Irteera guztiak erregistro-orrian idatziko dira. Guraso koordinatzaile, ikasketa-buru nahiz Ikastolaren zuzendariak irtenaldien berri izan beharko dute. Dagokion ziklo-arduradunak irtenaldia nora egiten den, helburu orokorrak, irteera eta itzulera-orduak eta abarren berri emango du. Irtenaldien arduradunak edo arduradunek beren helbururako egokiena den garraibidea hautako du, eta zuzendaritzari jakinaraziko dio.

4.4.4- Ikastolaren autobus zerbitzua behar bada, koordinatzaileen bitartez idazkaritzarekin zehaztuko dira bidaiari dagozkion xehetasunak.

4.4.5- Ikasleek, galduz gero, nora jo jakin beharko dute. Komenigarria da, horrenbestez, guztiek beren helbide eta telefono-zenbakia jakitea; edota, bestela, ikusteko moduko lekuren batean idatzita eramatea.

4.4.6- Zenbait egunetarako irtenez gero, idatziz jakinaraziko zaie gurasoei, eta ondorengo zehaztapenak eramango zaizkie: helburu orokorra, irtenaldia nora egiten den, zer eraman behar duten, kostua eta hots egin dezaketen telefono-zenbakia, beti ere oso argi utzirik larrialdietan baino ez dutela deitu behar.

4.4.7- Inoiz ere ez da irakasle bakar bat joango taldeko horrelako irtenaldietara.

4.4.8- Beti eramango da lehen sorospenetako botikin bat.

4.4.9- Ikasleen ardura daukan pertsona tutorea da, horrenbestez, berorren erantzukizuna izango da ikasleak zenbatzea, bakarrik ez uztea e.a. Dena den, arduradun guztien zeregina izango da irtenaldian sor daitezkeen arazoei aurre egitea.

4.4.10- Txango edo irtenaldi horietan elkarbizitzarako jokaera larri eta kaskarra erakusten badu ikasleren batek, beren guraso edo tutore legalak jakinaren gainean jarriko dira, ikaslea etxera eraman dezaten. Beraiek jaso ezingo balute, etxera bidaltzeko modua bilatuko litzateke. Ikasle horri hurrengo irtenaldietan parte hartzea debeka dakiok.

4.5- Euskara eta komunikazioak:

4.5.1- Axular Lizeoaren xedeari erantzunez, helburu nagusia Ikastolak duen harreman oro euskaraz buru dadin lortzea da. Horretarako, honakook landu beharko dira.

- ❖ Euskarak ikastolako bilera guztietan izango du presentzia.
- ❖ Gurasoei igorri beharreko gutunak beti euskaraz eta gazteleraz idatziko dira.
- ❖ Ikastolaren kanpo-komunikazio guztietan **euskarak** izango du lehentasuna.
- ❖ Ikastolak bere inguruan antolatzen diren euskararen aldeko ekintzetan esku hartuko du, alderdi politiko edo beste erakunde bakar baten ekimenezkoak direnean salbu.

4.5.2- Ahal bada, gurasoekin egin ohi diren gelako bilera orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, baina lehentasuna euskarari emango zaio. Etapa bakoitzak zehaztuko du zein baliabide erabili.

Haur eta Lehen Hezkuntzako txostenak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, eta euskara hutsean gurasoek espresuki hala eskatuta. Bigarren Hezkuntzan txostenak ele bitara idatziko dira, baina oharrak gurasoek eskatutako hizkuntzan agertuko dira.

4.5.3- Ikastolari eskatzen zaizkion agiri, ziurtagiri, gutun, ordainagiri eta gainerako idatziak euskaraz egingo dira, inork kontrakoa eskatzen ez badu, behintzat.

4.6-Prestakuntza plana:

4.6.1- Ikastolako langile ororentzat eginbide eta betebeharra da birziklatzea. Birziklatze, egokitze eta antzerako ikastaroak ikastolatik at eta ikastola barruan egin ahal izango dira.

4.6.2- Ikastaro batean esku hartzea aberasgarria da partehartzailearentzat, zein zentroarentzat; eta era berean, ahalegin berezia eskatzen dio bai batari, bai besteari. Hori dela eta, irizpide orokorra izango da ekintza horietako asistentzia sustatzea.

4.6.3- Edozein irakasle nahiz langilek eskatu ahal izango du birziklapenerako ikastaro profesional batean esku hartzeko baimena. Baimen hori zuzendariak edo ikasketa-buruak emango du beti, ikastolak

eduki beharko duen langileriaren prestakuntza-plan baten arabera, Ikastolaren interesak interes partikularrekin bat etorriz.

4.6.4- Ikastaroek ez dute ikasleen klaseen ohiko jarduna eragotziko. Hori horrela izanik, irakaslea ordezkaturia izango da.

4.6.5- Ikastaroaren amaieran nondik norakoen eta eskuratutako materialaren berri emango zaio dagokion arduradun, mintegi buruari edo ikasketa-buru edo zuzendariari. Gainera, ebaluazio-orria beteko du prestakuntza-plana burutu duela egiaztatzen duena.

4.6.6- Era berean, derrigorrezko asistentziara behartzen duten ikastaroak antolatu ahal izango dira, lanorduetan beti ere.

4.7-Ordezkaketak:

4.7.1- Iraupen luzeko gaixotasun, zein aurreikus daitekeen beste ziorik izatekotan, irakasleak zuzendariari jakinaraziko dio, eta azken horrek behar den ordezkapena antolatuko du. Irakasle ordezkaria irakasle titularrarekin harremanetan jarriko da, hasiera batean ordezkapena egin aurretik, azken horrek gela eta prozesuaren berri eman diezaion; eta, aurrerago titularrari, ordezkatzeari buruzko informazioa jakinarazteko.

4.7.2- Langilearen betebeharra da zuzendaria edo ikasketa-buruari balizko ez etortze bat lehenbailehen jakinaraztea, ahalik eta azkarren ordezkaria aurki dakion.

4.7.3- Baja epe laburrerako bada, ikasketa-buruak eta ordezkaturitakoaren maila bereko irakasleak ordezkatu beharreko gelari dagozkionak (ordutegiak, jarduerak etab.) jakinaraziko dizkiote ordezkariari.

4.7.4- Baja epe luzerako bada, ikasketa-buruak lan egiteko modua, zer egin e.a. adieraziko dizkio eta ordezkaturitakoaren gainbegiraturiko ditu egokien deritzon eran. Koordinatzaileak adieraziko dio nola lan egin behar duen, beharrezko agiriak erakutsiko dizkio (AKAS deritzana) eta ordezkaturitakoaren jarraipen-lana egingo du.

4.7.5- Bigarren Hezkuntzan noizbehinkako ordezkaturitakoak eta ordezkaturitakoak laburrak zikloko irakasleek egingo dituzte (egun bat edo bi), eta koordinatzaileak egokitu beharko ditu gainerako irakasle eta irakasgaien ordutegietara.

4.8- Eskolaz kanpoko ekintzak:

4.8.1- Ikastolaren ohiko irakaskuntza-jardunek eskolaz kanpoko ekintzak dituzte osagai, baina azken horiek, lehenak ez bezala, ez dira nahitaezkoak eta lan-orduetatik kanpo izan ohi dira.

Eskolaz kanpoko ekintzak, nagusiki, euskaraz egingo dira. (Zenbait ekintza, hala ere, gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez egingo dira hauetako hizkuntzaren baten arloari dagokiolako)

4.8.2- Ikastolak antolatzen dituen eskolaz kanpoko ekintzak hiru taldeotan bana ditzakegu: kirol-ekintzak, kultur ekintzak eta ekintza zientifiko-teknologikoak.

4.8.3- Eskolaz kanpoko kirol-ekintzatzat ondorengoak jotzen dira: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta Batxilergorako ikasle guztientzat antolatu, eta alor horretako arduradunak koordinatutako hainbat kirolen jardunak.

4.8.4- Ekintza horietan esku hartzen duen orok nahi duen kirola egin ahal izango du, ikastolaren eskaintzaren barruan egonez gero; eta ez badago, ikastolak bideratuko du interesa dutenak eskaintza hori daukan kirol-talderen batekin harremanetan jartzea.

4.8.5- Eskolaz kanpoko kirol-ekintzen arauak araudi honen 7.3 atalean daude zehazturik, eta zehatzago adierazita Ikastolaren Kirol Proiektuaren barruan.

4.8.6- Eskolaz kanpoko kultura-ekintzak ikastolan burutu ohi dira zentroaz kanpoko pertsona edo erakundeen eskutik. Azken horiek eta ikastolaren artean aliantzak egon ohi dira ekintzak Ikastolaren misio eta baloreekin uztarturik garatu ahal izateko. Ikastolak erabili beharreko areto eta hainbat material uzten ditu, eta ekintzak taxuz buru daitezen behatzen du; baina ez du horien barne-garapenean esku hartzen.

Ekintza horiei buruzko edozein gorabeheratarako jarraiki beharreko bidea dagokion arduradunarekin mintzatzea da, eta guztiz premiazkoa bada soilik joko da ikastola-zuzendariarengana.

4.9- Tabakoa:

Abenduaren 26ko 28/2005eko LEGEAREN arabera, tabakoaren aurkako osasun-neurriak, salmenta, banaketa eta kontsumoa eta publizitateari dagozkionak kontuan izanik, Ikastola eremu osoan debekatuta dago erretzea (espazio ireki zein itxietan), hesitik barrura, hain zuzen ere.

4.10- Egutegiak:

4.10.1- Bi egutegi mota daude ikastolan: eskola- eta lan-egutegia.

Eskolako egutegia: zuzendaritza-batzordeak onartzen du eta lan-egutegiaren oinarria da. Indarrean dagoen Hezkuntza Sailaren legediari egokitzen zaio eta klaustroak eta gurasoek egindako ekarpen edo aukerabideak jasoko ditu.

Lan-egutegia: Eskola egutegia du oinarri eta indarrean dagoen Ikastoletako Lan Hitzarmenari egokitzen zaio. Zuzendaritza-batzordea eta langileen ordezkarien artean (egongo balira) negoziatzen da. Gurasoen ekarpen eta aukerabideak jaso ditzake.

Ikasturte hasiera baino lehen onartuta egon behar du; hori ezinezkoa izanez gero, aurrekoak jarraituko du indarrean, eta eskola-egutegiari egokituko zaio.

4.11- Irakasle-klaustroa. Funtzionamendua:

- Klaustroa zuzendariak deitu eta presiditzen du (edo berori ez balego, koordinatzaileak).
- Deialdiarekin batera eztabaidatu beharreko gai-zerrenda aurkeztu beharko da.
- Klaustroak euskaraz egingo dira.
- Derrigorrezkoa da deitutako klaustro osoak esku hartzea. Klaustroa joan ezin duenak zuzendaria edo ikasketa-buruari jakinaraziko dio.
- Klaustroa behar hainbat alditan eta lanorduetan deituko dira.
- Klaustroen helburuak informatzea, eztabaidatzea edo erabakitzea izan daitezke. Pedagogi erabaki guztiak binkulanteak izango dira.
- Klaustro bakoitzeko bilera-akta bat idatziko da.
- Klaustroari dagozkion gainontzeko ñabardunak ZHPan jasota daude.

4.12-Zehaztapen zenbait.

1.- KOMUNAK: Ziklo bakoitzak dagozkion komunak erabiliko ditu:

- **Haur Hezkuntza:** bere solairuan dituztenak eta jolastokikoak erabiliko dituzte.
- **Lehen Hezkuntza:** bere solairukoak eta jolastokikoak erabiliko dituzte.
- **Bigarren Hezkuntza:** beraienak direnak eta jolastokikoak erabiliko dituzte.

2.- Ikastolako eremuan ezin da ez patinetarik, ez bizikletarik erabili. Ikasleek ikastolara ezin dute ez txikle eta piparik ekarri.

3.- Guztion lana da gelak txukun eta ordenan mantentzea. Nor bere mahai eta aulkiez arduratuko da. Arbel, armairua txukun mantentzea guztion lana da. Debekatua dago orriak irakaslearen baimenik gabe hartzea.

4.-Jangelan geratzen ez diren ikasleek irakaslearen baimena izan behar dute eguerdian ikastolan geratu ahal izateko.

5.- Autobusez kanpora edo zinemara egiten diren irtenaldietan, pipa, gozoki, txikle e.a jatea debekatua dago.

6.-Ikasleek begirunez jokatu dute irakasle, zaintzaile, autobus-gidari, jangela-zaintzaile eta, oro har, gizatalde ororekin. Hau da, ikaslearekin antolatzen diren ekintzak direla eta, harremanetan dagoen pertsona guztiarekin (monitore, beste hainbat ikastetxetako irakasleekin, kirol lehiaketak, ibilaldiak ...)

7.- Ikastolaren eremura animaliak ekartzea debekatuta dago, bereziki txakurrak. Ikastolara sartuz gero, ekarri duenak izango du ardura guztia. Esanak esan, pertsonaren bat txakurren batekin agertzen bada, behar bezala lotuta agertu behar luke. Ikastola eremuan animaliek zikindutako guztia garbitu behar da.

Arratsaldeko 16:30etatik aurrera ikastolak antolatutako ekintzaren batean ari ez diren ikasleak guraso edo tutore legalen esku geratzen da beraiekiko ardura.

BA honetan oinarrituz, etapa bakoitzak araudi zehatzagoa prestatuko du, zeina ikasleei jakinaraziko zaien. Era berean, geletan arau horren laburpena izango dute ikasleek.

5.-DIZIPLINA -ARAUDIA:

5.1- Ikasleen diziplina araudia:

5.1.1- Heziketaren xedea gure ikasleei pertsona-izate prozesuan laguntza eskaintzea bada, heziketa-praktikan egin dezakegun gauza oro helburu horri begira egingo dugu.

5.1.2- Ikasle guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte eta abenduaren 2ko 201/2008 dekretuan 1.atalean jasotzen dira. Adinaren arabera eta ikasten ari diren mailaren arabera baliatuko dituzte eskubide eta betebeharrak horiek.

5.1.3- Ikasleek beren eskubideak baliatuko dituzte, beren betebeharrak betetzea eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak aintzat hartu eta errespetatzea bazter utzi gabe.

5.1.4- Hezkuntza-komunitatea osatzen duten kide guztiek 201/2008ko dekretuan jasotzen diren ikasleen eskubideak errespetatu behar dituzte. Beste guztien eskubideen errespetua izango da ikasleentzako muga beren eskubideez baliatzerakoan.

5.1.5- Ikastolako gobernu-organismoek eta irakasleek ikasleen eskubideak egoki baliatzen direla eta betebeharrak zorrotz betetzen direla bermatuko dute, Dekretu honetan aurreikusitakoari jarraiki.

5.1.6. Ulertu behar dugu neurri zuzentzailea gertatutakoaren larritasunean oinarritzen dela, hau da, adinean eta ikaslearen ezaugarri pertsonaletan. Beraz, neurri zuzentzailea tresna pedagogiko bat da, zeinaren bidez jarrera eta gertaera desegokiak zuzenduko diren, pertsona-formakuntzaren prozesuaren bidean.

5.1.7. Ikasleen integritate fisiko eta duintasunaren aurkako zigorrik ez da ezarriko.

5.1.8. Ikasleei inoiz ez zaie ukatuko bere heziketa-eskubidea eta nahitaezko mailetan, eskolatze-eskubidea.

5.1.9. Zuzendu beharreko jokabideak:

Desegokiak, aurkakoak eta bizikidetzarentzat larriki kaltegarriak diren jokabideak baino ezin izango dira zuzendu.

5.1.9.A.- JOKABIDE DESEGOKIAK

- a) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak.
- b) Justifikatu gabeko puntualtasun-hutsegiteak (Tutoreak eta irakasle-klaustroak erabakiko du frogagiriaren balioa).
- c) Ikastolako instalazioei, materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean (Esate baterako, hormetan idaztea, mahaiak marrazki edo idatziekin zikintzea, autobusak hondatzea).
- d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea, betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziiplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.
- e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.
- f) Ikastolako Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea (adb., DBHko araudian jasota dagoen eskuko telefonoei buruzkoa ez errespetatzea).
- g) Ikastolako ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo zeinahi motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.
- h) Ikastolako langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.
- i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiatzea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.
- j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Bizikidetzaren arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.
- k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.
- l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzaren horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

5.1.9.B.- IKASTOLAKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEAK.

- a) Ikastetxeetako lagun bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edota irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira (klase-orduan, jolasgaraian, korridoretan, Ikastolatik kanpo ...)
- b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak, betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.
- c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.
- d) Noten buletinetan edo gurasoentzako nahiz legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea.
- e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.
- f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea (Etapako bakoitzaren araudiak espazio-mugaketari buruz dioena ez errespetatzea, esaterako).
- g) Besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.
- h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea, betiere indarkeriarik erabili gabe.
- i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta betiere bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kideengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtzirik gabe erabiltzea.

k) Ikastolako langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie (Esate baterako, ikastolatik ikastorduan alde egin duela justifikatzeko, edo zenbait esapide edo ekintza beste norbaiti leporatzeko).

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean, betiere aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan bilduta ez badago, ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

5.1.9.C.- IKASTETXEKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEAK

a) Ikastetxeetako Gobernu Organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik gabeko egintza edo obedientzia-ukatze esplizitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen biziki laidogarri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

c) Jazarpen sexista, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki halakotzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola eta beste drogak kontsumitzera bultzatzea.

f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.

g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka bai taldean.

i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan, betiere hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldeztatik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esan-bidez adierazi badute.

k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan beste edonoren izena erabilia aritzea.

l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, trukitzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada (Gauzen lapurreta, adibidez)

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzen-zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubidea (Esate baterako, ikasleen batzarrerako eskubideari buruzko artikuluek jasotzen dutena ez ezagutzea eta onartzea, Batxilergoko araudian jasota baitago).

5.1.10.- PRINTZIOPIO OROKORRAK IKASLEEK BEREN BETEBEHARRAK EZ BETETZEAN IZANDAKO JOKABIDEAK ZUZENTZEKO

1.- Ikasleen betebeharrak ez betetzea beti hartuko da, behintzat, **jokabide desegokitzat**. Ez-betetze horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko bizikidetzaren **aurkako jokatibidetzat** edo bizikidetzat horri **kalte larria eragiten dion jokatibidetzat** hartuko da.

2.- Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzendu beharko dira, zuzendu beharreko jokabidearekin lotutako neurrien bitartez.

3.- Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, batez ere, hala zuzendu behar den jokabidea egin duen ikaslearentzat, nola gainerako ikasleentzat. Neurri zuzentzaileak hezkuntza-jardunaren baitan beteko dira, hainbat arlotako oinarrizko gaitasunak lortzen laguntzeko, hala nola gizarte- eta herritartasun-arlokoak nahiz autonomia eta ekimen pertsonalaren arlokoak.

4.- Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunaren eta gutxieneko esku-hartzearen printzipioak kontuan izanda ezarriko dira, eta adiskidetzearen eta kalte-ordainaren bidez irtenbidea lortzeari emango zaio lehentasuna, betiere ahal den hezkuntza-eraginkortasunik handiena lortzearren.

5.- Neurri zuzentzaileak ere ezarri ahal izango dira, ikastolatik kanpo izandako jokabide edo ekintza bat dela eta.

6.- Lehen Hezkuntzan dekretuan jasota dauden betebeharren urraketarik gertatzen bada, irakasleek ahoz eta berehala zuzenduko dituzte, jasota dauden jokabide desegokietarako neurriak ezarriz. Dena den, pertsonen edo gauzen balizko kalterik gerta ez dadin, behin-behineko neurriak har litezke.

5.1.11.- HEZKUNTZAKO NEURRI ZUZENTZAILEAK ETA DESEGOKIAK, AURKAKOAK EDOTA BIZIKIDETZARENTZAT LARRIKI KALTEGARRIAK DIREN JOKABIDEEN BESTE ONDORIO BATZUK

5.1.11.A- JOKABIDE DESEGOKIEN ZUZENKETA

Jokabide desegokiak irakasleek zuzenduko dituzte, honako bide hauetako bat edo batzuk erabiliz:

- a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.
- b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.
- c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.
- d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zerikusia duen zereginen bat egitea.
- e) Zuzendariaren, ikasketa-buruaren edota une horretantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzeko agindua.
- f) Zuzendaritza-taldeko arduradunek eta ikastetxeko elkarbizitza-batzordeak hautematen badute balizko jokabide bat, eta jokabide hori adingabe baten aurkako jazarpen-kasutzat har badaiteke, KIVA protokoloak eta/edo Hezkuntza Sailaren protokolo ofiziala aktibatuko dira honako kasu hauetan:
 - Inplikaturako familietakoren batek berariaz eskatzea.
 - Ikastolak ofizioz.

5.1.11.B- IKASTETXEKO BIZIKIDETZAREN AURKAKO JOKABIDEEN ZUZENKETA

1.- Bizikidetzaren aurkako jokabideak zuzentzeko, zuzendariak edo zeregin horretarako izendatua dagoenak, (Etapako koordinatzaileak, berbarako), aurreko artikuluan zerrendatutako neurriak edo honako neurri hauetako bat edo gehiago aplikatu ahalko ditu:

- a) Bizikidetzaren aurkako jokabideari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa eta jokabidea bideratzeko orientazioak.

- b) Ohartarazpen idatzia.
- c) Ohartarazpena, ikasle adingabeen kasuan, gurasoak edo legezko ordezkariak bertan direla.
- d) Ikaslea taldez edo gelaz aldatzea, aldi baterako edo behin betiko.

e) Lan hezigarriak edo eragindako kalte materialak konpontzeko lagungarriak diren zereginak egitea, edo hala badagokio, ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, betiere hiru hilabetez gehienez ere.

f) Ikasgai bateko edo bat baino gehiagoko eskoletara nahiz ikastetxera joateko eskubidea etetea, ikasle adingabeen gurasoekin edo legezko ordezkoeekin elkarriketa izan arte. Neurri horrek ezin izango du hiru egun baino gehiago iraun.

g) Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte.

h) Eskolaz kanpo egin behar diren jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendutako jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte; edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte. Nolanahi ere, eskola-ordutegiaren barnean, ikasleari arreta eman beharko zaio ikastetxean.

i) Jangela-zerbitzua edo garraio-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea, gehienez ere zuzendu beharreko jokabidea egin den hiruhilekoa amaitu arte, edo, jokabide hori hiruhileko akademikoaren azken hilabetean gertatu bada, hurrengo hiruhilekoa amaitu arte, betiere bizikidetzaren aurkako jokabidea zerbitzu horiek erabiltzen ari zenean egin badu ikasleak.

2.- 1.g), 1.h) eta 1.i) idatz-zatietan adierazitako neurriak erabili ahal izan dira, soilik 1.a) eta 1.f) idatz-zatietan adierazitako neurrietatik bi gutxienez aplikatu ondoren bizikidetzan kalte larriak eragiten dituzten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

5.1.11.C- IKASTOLAKO BIZIKIDETZARI KALTE LARRIA ERAGITEN DIOTEN JOKABIDEEN ZUZENKETA

1.– Ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzeko aurreko artikuluan bildutako neurri bat edo gehiago aplikatuko ditu zuzendariak, eta, horiez gain, honako hauetako edozein:

a) Lan hezigarriak eskola-ordutegitik kanpo egitea, edo ikastetxeko jarduerak hobetzeko eta garatzeko lagungarriak direnak, edo, hala badagokio, eragindako kalte materialak konpontzeko lanak, betiere sei hilabetez gehienez ere.

b) Arlo edo irakasgai bateko edo gehiagoko eskoletara joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

c) Ikastetxera joateko eskubidea etetea hiru eskola-egunetik hogeira bitartean. Horren ondorioz, ikasleak ez du etengabeko ebaluazioa galduko, betiere lan jakin batzuk edo etxerako zeregin jakin batzuk egiten baditu, hartarako izendatutako irakasleek kontrolatuta.

d) Eskolaz kanpoko jardueretan edo ikastetxetik kanpoko jarduera osagarrietan parte hartzeko eskubidea edo eskola-garraioko zerbitzua edo jangela-zerbitzua erabiltzeko eskubidea etetea. Neurri hori ikasturtea amaitu arte aplikatu ahal izango da.

2.– Artikulu honetako 1.b), 1.c) eta 1.d) idatz-zatietan bildutako neurriak erabili ahal izango dira, baldin eta 1.a) idatz-zatian adierazitako neurrietako baten bat aplikatuta bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabideak zuzentzea lortu ez bada.

5.1.12.- JOKABIDE-ZUZENKETA NEURRIEN PROPORTZIONALTASUNA BERMATZEN DUTEN ERIZPIDEAK.

1.– Jokabide deskribatuak zuzentzeko neurriak aplikatzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

a) Jokabide deskribatuek zer neurritan eragozten diete hezkuntza komunitateko gainerako kideei beren eskubideak eta betebeharrak betetzea.

b) Hezkuntza komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo autoritatean pairatu duten kaltea, edota jokabide aipatuen ondorioz jasan dezaketena.

c) Ikaslearen jokabidearen gain eragina izan dezaketen inguruabarrak nahiz ikasleak bere betebeharrak bete ez dituela eta 3.3 artikuluan zehazturiko oinarrizko gaitasunetako hutsuneak zuzen balioestea ahalbidetzen duten inguruabar pertsonalak eta sozialak.

d) Jokabidea osatzen duten gertakariak gauzatzearekin zerikusia duten inguruabarrak.

e) Ikasleen adinaren egokitzapenari buruzko abenduaren 2ko 201/2008ko dekretuaren 29. artikulua adierazten duenez, ezarriko diren neurri zuzentzaileek eskola-tapa bakoitzari dagozkion agirietan adierazten diren urratsak jarraituko dituzte.

2.– Jarraian aipatuko ditugun inguruabarrengatik hain murriztaileak ez diren neurri-zuzentzaileak aplika daitezke eta, era berean, **erantzukizuna gutxiagotzen dute**. Hona hemen:

a) Berehala onartzea zuzentzea merezi duen jokabidea desegokia izan dela.

b) Aurretiaz neurri zuzentzaileak jaso ez izana.

c) Materialari edo ondasun higigarriari edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.

d) Jendaurrean barkamena eskatzea.

e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez duela erakustea.

f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3.– Ondoko inguruabar hauek gertatzen badira, **erantzukizuna handituko da** eta eskubideak zuzentzeko neurri murriztaileagoak erabiliko dira:

a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adinez txikiak, minusbaliatuak, ahalmen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.

b) Kaltea nahita egina izatea.

c) Kaltea apropos egitea edo aldez aurretik prestatu ondoren egitea.

d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.

g) Eskola-arloko ordezkaritza-kargua gehiegikeriaz baliatzea jokabidea zuzentzea eragin duten egintzetarako.

5.1.13.- NEURRI ZUZENTZAILEEN EZARPENA 3. ATALAREN arabera erabakiko da, zeina abenduaren 2ko eskubide eta betebeharren dekretuan oinarritzen den IRTENBIDE ALTERNATIBOEN kasuen ezarpenerako, eta, 4. ATALEN artikuluetan ohiko eta ez-ohiko prozeduren kasurako.

5.2- Langileriari dagokiona:

5.2.1 -Falten sailkapena honakoa da: arinak, larriak, eta oso larriak.

ARINAK:

- Hilabete batean eginiko hiru puntualtasun-falta justifikatu gabeak.
- Ikasleak arrazoi jakinik gabe bakarrik uztea.
- Lanpostu, epe laburrez bada ere, abisurik eta /edo baimenik gabe (arrazoia zehaztuz) uztea.
- Hezkuntza-komunitatea osatzen duten partaideak mesprezatzea.
- Informe akademikoak alde zuzenetik ezarritako epean justifikaziorik gabe ez ematea.
- Koordinatzaile, ikasketa-buru edo zuzendariari zikloan gerta daitezkeen koordinazio-gabezien berri ez ematea.
- Ikastolari dagokion informazioa arinki eta kontu gehiegirik gabe zabaltzea.

LARRIAK:

- ❖ Ikasturtean zehar falta arin bat errepikatzea.
- ❖ Hilabete batean hiru puntualtasun falta baino gehiago egitea.
- ❖ Lanera abisu edo justifikaziorik gabe ez etortzea.
- ❖ Ikastolak ordainduriko ikastaroetara arrazoi jakinik gabe ez joatea.
- ❖ Guraso, irakasle eta mintegiekin egin beharreko bilerak ez egitea.
- ❖ Ikastolako organo erabakitzaileak ezarritako irizpideen aurka joatea.

OSO LARRIAK

- ◆ Ikasturtean zehar falta larri bat errepikatzea.
- ◆ Ikasturtean zehar bi falta larri egitea.
- ◆ Ikastolari edo bertako kideren bati kalte larriren bat ekar diezaiokeen lan-arloari dagokion obedientzi falta.
- ◆ Berriaz ikastolaren interesen aurka aritzea edo hari kalteak eragitea.
- ◆ Ikastolaren barne-informazioa beraren kalterako erabiltzea.

5.2.2- Hartu beharreko neurriak (A= arinak, L=larriak, OL= oso larriak.)

A:1.-Arduradunak emaniko ahozko zein idatzizko abisua.

L:1.- Idatziz emaniko abisua.

2.- Isun ekonomikoa.

OL:1.- Idatziz emaniko abisua.

2.- Isun ekonomikoa.

3.- Kontratua indargabetu.

5.3- Langileen batzarra:

5.3.1- Ikastolako langile guztiak biltzen dituen organoa da.

5.3.2- Bertan jorratuko dira gai laboral guztiak.

5.3.3- Erabakiak idatziz eta sekretuan eginiko bozketaz hartuko dira. Botoa delegatzerik badago, nori nori delegatzen dion idatziz adieraziz.

5.3.4- Erabakiak lotesleak edo binkulanteak izango dira.

5.3.5- Asanblada legez eratutzat joko da, bertan gutxienez langileriaren 2/3 biltzen denean.

5.3.6- Eginiko proposamenak botoen erdia eta boto bat gehiago beharko ditu onartua izan dadin. Zuriz emaniko botoak ez dira zenbatuko.

5.3.7- Batzar-deialdia gutxienez langileriaren % 33k egin behar du. Langiletzat egun horretan lanera joanak eta botoa delegatu dutenak hartuko dira. Deialdia idatziz aurkeztuko da. Deialdia izenpetu duten lehen hiru langileek zuzenduko dute asanblada.

5.3.8- Batzarrak lanorduetatik kanpo egingo dira, premiako egoera bat edo bat-bateko erantzuna eskatzen duen arazoren bat izan ezean. Asanblada ikastolan egin nahi izanez gero, deialdira egiten duen taldeak alde aurretik zuzendariari eskatuko dio bilerarako aretoa.

5.3.9.- Deialdia 48 orduko aurrerapenaz egingo da eta aipaturiko baldintzak bete ondoren. Premiako egoeren aurrean, araua alda daiteke, eta orduan deialdia lehenbailehen egingo da.

5.3.10- Biltzarra egiteko bi aukera izango dira: langileria osoaren batzar bateratua egin edo taldekakoa egin.

Aukera batzarra-deialdia egiten dutenen esku geldituko da.

Asanblada taldetan eginez gero, talde bakoitzeko ordezkariak botoak jaso eta jarraian beste taldekoekin batera zenbatuko dituzte.

Biltzarra bideo-gelan edo liburutegian egingo da; beti ere, ikasleek azken hau erabiltzeko duten eskubidea errespetatuko da.

5.4 Langileen greba:

5.4.1- Greba-deialdia behar adineko aurrerapenaz egingo balitz, asanbladak aldez aurretik erabakia hartuko luke eta, greba egitea erabakiko balu, familiei idatzi bat bidaliko litzaieke.

5.4.2- Greba-deialdia egun batetik bestera egingo balitz, batzarrak eguerdi aurretik bere erabakia hartuko luke. Ondoren familiei idatzi bat bidaliko litzaieke, hauen antolaketa erraztu asmoz.

Aipaturiko egiterik ez balego, ikastolak zerbitzu minimoak eskainiko lituzke, eta familiei bere seme-alabak jasotzera etor zitezten deituko lieke.

5.4.3- Langileen greba-eskubidea eta lan-eskubidea bermatuko dira.

6.- AZKEN XEDAPENAK:

6.1- Betetzea

BA honi Axular Lizeoko hezkuntza-komunitatea osatzen duten partaide guztiak lotzen zaizkie.

6.2- Ezagutza:

Axular Lizeoko hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztiek (adinez hori ezagutzea badagokie) araudia ezagutu eta bete behar dute.

Horretarako, zuzendaritza-batzordeak behar diren bitartekoak jarriko ditu (klaustroak, gelak, gurasoak) eta aipatu araudiaren ale bat nahi duen ororen esku geratuko da.

Araudia onestean eta ikasturte bakoitzaren hasieran haren edukiaren berri emango da (gela bakoitzean BAren ale bat egongo da)

6.3- Aldaketak

BAn aldaketak soilik Artezkaritzak egin ditzake, proposamen berriek gehiengo osoaren botoen babesarekin badute. Berrikuspena ZHParekin batera egingo da.

BAren berrikusketak ZHParekin batera egingo da eta beti bai euskaraz eta bai gaztelaniaz.

7.- ERANSKINAK

7.1- Autobusari buruzko araudia:

1. Enpresa, autobus-gidari eta autobus-zaintzaileen erantzukizuna ikasleak autobusean sartzen direnean hasi eta ikasle horiek autobus-geltokian beste pertsona batek jasotzen dituenean bukatzen da. Hori guztia zehaztasun eta diligentzia osoz egin beharra dago, bereziki Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako hurrekin.
2. Aurreko puntua argiago gera dadin, beti honako oinarritzko araua beteko dugu: "Ez utzi haurrik geltokian bere bila inor etorri arte, eta, jasoko duen pertsona etorriko ez balitz, Ikastolara deitu edo bertara eramanez, baina **ez utzi INOIZ** bakarrik".

3. Ikaslea autobusetik atera eta eskolan dagoenean, ardura ikastolak du eta irakastorduetan erantzule nagusia dagokion irakasle da.
4. Zentroak eta gurasoek ikastolako sarrera-irteera libre uzteko ahaleginak egingo dituzte, haurrak autobusera eta zaintzaileengana errazago hel daitezten.
5. Printzipioz autobus eta geltoki aldaketarik ez da egingo. Aldaketaren bat egitekotan, Zuzendariak edo honek ordezkari izendatutako pertsonak egingo luke.
6. Ikasleak, bai igoeratan bai jaitsieratan, geltokika sailkatzeko ahalegina egingo da.
7. Zaintzaile bakoitzari autobusean dauden ikasleen zerrenda emango zaio.
8. Zaintzaile, eta, ahal den neurrian, gidariek **euskara** erabiliko dute harreman-hizkuntza gisa.
9. Autobusean ezin da jan (ogitarteko, pipa, txikle e.a.)
10. Ikasleren batek autobusa galduko balu, idazkaritzara jo beharko luke.
11. Goizaldeko azken orduan (12:30) eta arratsaldeko azken eskola eman duen irakasleak (16:30), arreta berezia jarri behar du eskola amaierako orduan, ikasleek denbora nahikoa izan dezaten autobusa hartu ahal izateko.
12. Autobusean ikasleren baten jarrera desegokia bada, honako prozesu hau jarraituko da:

Autobuseko arduradunak idazkaritzan jakinaraziko du ikaslearen jokabide desegokia. Jarraian:

Ikasleari zuzenean ohartarazi eta tutorea jakinaren gainean jarriko behar da.

Gurasoei jakinaraziko zaie jarraian.

Zuzenean ohartarazi ondoren, tutorea jakinarazi eta gurasoak jakinaren gainean jarri eta gero, azken oharra emango zaio bere jokabidea zuzendu dezan.

Neurri zuzentzaile modura, autobusa erabiltzeko eskubidea galduko du.

7.2-JANGELAKO araudia

Jangelako txandak errespetatu behar dira.

Jangelako erabiltzaile guztiek hondakinen birziklapenean lagunduko dute (Papera, plastikoa, organikoak, ogia ...)

Bazkaldutakoan, erabiltzaile guztiek aulkiak mahai azpian jarriko dituzte.

Jangelan ezin da zalaparta eta garrasirik egin eta kontu handiz ibiliko da.

Jangelako arduradunek **euskaraz** egingo dute ikasleekin ari direnean, irakasleekin eta elkarrekin hitz egiten aritzen direnean.

Jangelako arduradunei begirunez hitz egin behar zaie (gauzak eskatzerakoan ("MESEDEZ" eskatu e.a)

Ikasleren baten portaera desegokia izanez gero, honako jokabidea jarraituko da:

Arreta zuzenean deitu, eta tutoreari horren berri emango zaio.

Arreta zuzenean deitu, tutoreari horren berri eman eta gurasoei esango zaie.

Arreta zuzenean deitu, tutoreari horren berri eman, gurasoei esan, eta bere jarrera alda dezan azken abisua emango zaio.

Ikasturtean zehar ez du jangelan jaterik izango.

7.3- Kirol-eta eskolaz kanpoko ekintzak

Monitoreek ikasleei **euskaraz** hitz egingo diete eta beraien artean euskara sustatzen saiatuko dira.

Talde-sentimendua bultzatuko da, norbanakoaren nortasuna deuseztatu gabe.

Epaile, aurkako talde eta taldekideekiko begirunea bultzatuko da.

Partidak bukatu ondoren aurkako taldeari agur egingo zaio.

Monitorea ez zaio epaileari modu txarrez zuzenduko.

Jantziak: denek Axular Lizeoaren jantziak erabiliko dituzte. Ikastolako talde ofizialei Zentroaren txandala janzteak eskatuko zaie.

Monitoreak sarrienik ikastolaren txandala jantziko dute.

Partidak jokatu ahal izateko entrenamenduetara joatea ezinbestekoa da. Hutsegiteak justifikatu behar dira.

Taldekide denek jokatu behar dute partiduetan denbora jakin batez.

Irabaztea bezain garrantzitsua da taldearen partaide sentitzea.

Monitore edo entrenatzaile bakoitza bere taldearen jantziak jasotzeaz arduratuko da.

Entrenatzaileak dira bere taldeen arduradun entrenamendu eta partidu garaietan. Horiek bukatutakoan, gurasoak dira seme-alaben erantzule.

Entrenatzaileak entrenamendura joaterik ez balu, kirol-arduradunei eta, ahal izanez gero, jokalariei jakinaraziko lieke.

Entrenamenduetan lesiorik gertatuz gero, monitoreak izango du gurasoei abisatzeko erantzukizuna. Lesioa larria izanez gero, eta monitoreak autorik ez balu, honek aita/ama-ren bati ikasle Gurutze Gorri edo Erresidentziara eraman dezan eskatuko dio. Inor egon ezean, anbulantzia bati deituko zaio.

Nolanahi ere, monitoreak izango du gurasoei deitzeko ardura.

Istripuren bat gertatzen bada kirol-arduradunari lehenbailehen.

7.4- Haur danborradari buruzko araudia:

HAUR DANBORRADARAKO BARNE ARAUDIA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

1. ATALA.-

1.1- Axular Lizeoko haur danborradaren antolaketa Zentroko Danborrada Komizioaren eskumena da. Gehienez, 8 kidek osatzen dute, aurrerago zehatuko ditugun funtzioak betetzeko nahikoak direnak.

Aipatutako batzarra boluntarioki lanean ari diren gurasoek osatuko dute, eta, erabakiak gehiengo sinplez hartuko dira.

Arduradunek bete beharreko funtzioak honakoak dira:

Haur Danborradaren funtzionamendua hobetzeko beharrezko diren arauak erabaki eta, behar izanez gero, aldatu.

Danborrada kideen "bilketa" egin.

Entseguen antolaketa eta kontrola eraman.

Jantzi eta materialen mantenuaz arduratu.

Donostia Kultura Festak taldekoek antolaturiko bileretara joan.

1.2- Funtzio horiek batzordekideen artean modu honetan banatzea aholkatzen da:

Entseguen antolaketa: lau pertsona arduratuko dira, bi danbor-jole eta upelekin entseatzeko, eta beste bi gastadore eta kantineren ardura izango dutenak. Batzorde honetako lau kideak, gastadore eta kantinerek entsegurik ez dutenean, danborrariez arduratuko dira.

Jantziak: lau kideren esku geldituko da atal hau. Beraiek hartuko dute kasaka eta abarren mantenuaren erantzukizuna, janzki eta txapelak probatzeaz arduratuko dira, eta baita beharrezko diren konponketa eta aldaketak egiteaz ere.

Materiala: materialtzat danbor, upel, upeltxo, zutoihal, makilatxoak e.a. hartzen dira. Materialaren ardura bi pertsonak eramatea aholkatzen da. Horiexek eramango dituzte konpontzera apurturiko danborrak ...

Koordinazioa: batzordeko kide bat talde guztiak koordinatzeaz arduratuko da, eta era berean, *Donostia Kultura Festak* taldekoekin egiten diren arduradunen bileretara joateaz arduratuko da. Azkenik, Danborradan parte hartuko duten haurren zerrenda egingo du.

Batzordeko kideren batek, arrazoia edozein delarik, taldea uzteko erabakia hartuko balu, ikastolako aita edo ama den pertsonaren batekin harremanetan jarri beharko du, bera ordezkaria dezan.

2. ATALA .-

Axular Lizeoaren konpainian ikastolan matrikulatuta dauden LHko 2., 4., 5. eta 6. mailako ikasleek eta DBH 1eko ikasle guztiek hartu ahal izango dute parte. Baldintza bakarra ikasle kopuruan datza eta *Donostia Kultura Festak* taldeak arautzen duenaren arabera kopurua izan ohi da.

Axular Lizeoaren konpainiak 80 kide ditu, eta horietatik 16 gastadoreak eta kantinerak izango dira kopuru berean, 24 danbor-joleak, 36 upelak eta 4 mandatariak (danbor nagusia, danborren kaboa, upelen kaboa eta bandera-eramailea).

Danborradaren komisioko gurasoen seme-alabek bertan parte hartzeko lehentasuna izango dute, aitek eta amek egin duten lanaren esker ona erakustearren.

3. ATALA.- Parte hartzaileen banaketa

Kantinerak eta gastadoreak (16)

LHko 2. mailako ikasleak

Ikasle-kopurua beharrezkoa baino handiagoa izango balitz, zozketa bat egingo litzateke interesa dutenen artean. 8 mutilek eta 8 neskek osatuko dute.

Danborrak eta upelak (64)

Ikasleek osatuko dute honako lehentasun honen arabera:

LHko 6. mailako ikasleak.

DBH 1eko ikasleak.

LHko 5. mailako ikasleak.

LHko 4. mailako ikasleak.

Lehenik, LHko 6. mailako ikasleek beteko dituzte lekuak, eta, soberan daudenak DBH 1eko ikasleek. Gainontzeko lekuak LHko 5. mailakoek beteko dituzte, eta, lekuren bat bete gabe geratzen bada, LHko 4. mailakoek beteko dute.

Danborradan irteteko 64 ikasleetatik, baten batek LHko 2. mailan anai-arrebarik izango balu, lehentasuna izango luke bertan parte hartzeko, goiko paragrafoan zehaztutako ordena kontuan harturik. Irizpide hori danborradako anai-arreben artean ere erabiltzeko hartuko da kontuan.

4. ATALA.- Parte hartzaileen zerrenda.

Ikasleak aukeratu ondoren, danborradako parte hartzaileen zerrenda argitaratuko da. Izen-ematea atzeraezina izango da.

Bandera-eramailearen aukeraketa (neskatxa), danbor-joleen kaboa eta upel-joleena komisioak erabakiko du; danbor-jole nagusia (komisioak aukeratutakoen artean), Axular Lizeoaren helduen danborradako danbor nagusiak aukeratuko du. Komisioaren helburua izango da ikasle egokienari (edo egokienei) bete gabe geratzen diren lekuak ematea, norbaitek leku horri uko egiteagatik, edo eta gaixotasun baten ondorioz utzi behar izan diren lekuak, hain zuzen ere.

5. ATALA.- Kuota.

a) Komisioak erabakitzen duen diru-kopurua ordainaraziko da, mantenukuota gisa. Gaur egun 30 €koa da.

b) Jasotzen den dirua materiala konpontzeko eta berritzeko erabiliko da.

6. ATALA.- Jantziak.

Jantziak, txanoak, danborrak ... , ikastolarenak dira eta parte hartzaile guztiei utziko zaizkie. Zapatak haur bakoitzak ekarri beharko ditu. Zapaten kolorea beltza izango da **nahitaez**.

Danborradarako beharrezkoak diren jantziak, materialak eta eta bestelako gehigarriak ikastolak ordaindu ditu eta ikastolan bertan gordeko dira, datozen urteetarako behar bezala kontserba daitezten.

Ikastolak hasieran eginiko diru-ordainketa eta jantzi eta materialen berritze, hobetze eta konponketan erabilitako diruaren zati bat danborradan parte hartu duten haurren gurasoek ordainduko dute (diru-kopurua 5. atalean zehazten da); beste zatia *Donostia Kultura Festak* emandako diru-laguntzarekin beteko da. Diru-soberakinik izanez gero, jantzi eta materialaren berrikuntzan erabiliko da.

7. ATALA.- Jantzien zaintzea.

Guraso eta ikasleek jantziak kontu handiz zainduko dituzte jasotzen dituzten egunetik hasi eta berriz ikastolan itzultzen dituzten eguna iritsi arte. Jantziak jasotzeko eta itzultzeko eguna komisioak zehaztuko du, eta familiek egun horiek errespetatzeko ardura hartuko dute. Egunak gutun bidez jakinaraziko zaizkie gurasoei.

8. ATALA. - Entseguak.

Entseguen egitasmo orokorra garaiz jakinaraziko zaie parte hartzaile guztiei. Arduradunek parte hartzaileen bertaratzea zainduko dute bereziki, baita jokabidea ere, eta danborradan parte hartzeari utziko dio entsegutara bertaratzen ez den haurrak, edo jokabide desegokia duenak.

San Sebastian bezperan entsegua ikastolatik bertatik jotzen aterako da, konpainia txuriz jantzita Aieteko zahar-etxeraino (*Topalekuraino*), kantinerak eta gastadoreak izan ezik, ez baitira irtengo auzoko kaleetatik.

9. ATALA. - Haurren elkartzea eta jasotzea.

Parte hartuko duten ikasleen guraso edo tutoreek danborradako komisiok alde zuzenetik adierazitako orduan eta lekuan haurrak garaiz eramateko hitza emango dute, baita garaiz jasotzekoa ere, desfilea bukatutakoan. Lekua eta ordua gutun baten bidez jakinaraziko zaie gurasoei.

10. ATALA.- Danborradako komisioren ahalmena.

Araudi hau indarrean jartzeko sor litezkeen zalantza guztien irtenbidea danborradaren komisioren esku dago. Era berean, **bere erabakiak, gehiago simple batek onartuak izan direnak, apelaezinak dira, eta, komisioren beste erabaki baten bidez izan daitezke, soilik berriak aurrerago.**

11. ATALA.- Gurasoen hitz ematea.

Gurasoek araudi honetan adierazitako guztia onartzen dute euren seme-alabak danborradan izena emateko unean. Edozein zalantza argitzeko, edo iradokizunen bat egin ahal izateko, danborradako komisiari idatziz egitea gomendatzen da. Aipatutako iradokizuna komisiok egiten dituen ohiko bileraren batean aztertuko du.

12. ATALA.- Onarpena.

Danborradaren komisiok onartutako honako estatutu hau ikastolako zuzendaritzari aurkeztuko zaio onar dezan.

Estatutua onartutakoan, ikastolako web orrian argitaratuko da.